



UDAL IGERILEKU BATZUETAKO ABONO-KUOTAK IZAPIDETZEKO, ZERGA INFORMAZIOA ESKATZEARI BURUZKO IRIZPENA

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2015eko urriaren 22an kontsulta idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan, goiburuan adierazitako gaiari buruzko Bulegoaren iritzia eskatuz.

Idazkiak dioenez, kontsulta-egilea udaletxera joan zen udal kiroldegia erabili ahal izateko kuota ordaintzera. Idazkiak dioenez, familiaren diru-sarreraren arabera kalkulatzeko dituzten udalak kuotak, eta hainbat dokumentu eskatzen ditu (zenbaitetan urteko errenta aitortpenaren ziurtagiria eta bankuko aurrezki-libretaren fotokopia bat ere bai, azken orriko mugimenduekin). Kontsulta idazkiak dioenez, gaur egun udalak eskatzen du dagokion foru ogasuneko ondasunen eta higiezinaren egiaztagiria eta beste bat Estatukoa, bai eta [...]k Zerga Informazioa deritzona ere.

BIGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea”.

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Datuak Babesteko Euskal Bulegoari galdetu diote ea datuak babesteko oinarritzko eskubidearekin ondo ezkontzen den [...] Udalak eskatutako informazioa, udal igerilekuetara sartzeko kuotetan deskontuen onuraduna izateko.

[...] Udalak “Patronatuko Abonatuak” izena duen fitxategi bat du erregistratuta Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Fitxategien Erregistroan, eta uste dugu hor daudela bilduta erabiltzaileek ematen dituzten datuak. Fitxategia 2004ko urriaren 28ko [...]ko Aldizkari Ofizialean argitaratutako xedapen bidez sortu zen.

Udalak Zerga Ordenantza bat onartu zuen abonoak kudeatzeko, eta web orrian argitaratu zuen ([...] Udaleko Zerga Ordenantzak, 2013ko abenduaren 26ko [...]ko Aldizkari Ofizialean argitaratuak eta 2014ko urriaren 28ko udalbatzak aldatuak. Aldaketa 2015eko



abenduaren 23ko [...]ko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen). Ordenantzen 7. artikulua arautzen ditu kuoten hobariak, bai eta aurkeztu beharreko agiriak ere (eskaera-orria eta diru-sarrera ororen frogagiriak, bertan xedatutakoaren arabera).

Kuoten salbuespenak eta hobariak lortzeko udalak eskatzen duen informazioa zentzuzkoa da, Konstituzioaren 31. artikuluan ezarrita dagoen karga publikoei aurre egiteko printzipioari proportzionaltasun irizpide bat ezartzen duelako. Udal korporazioak zerga ordenantzak erabiltzen ditu zehazteko zenbatekoa izan behar den kuotetan egin behar den ekarpena karga publikoei aurre egiteko, eta bete behar hori bakoitzaren egoerara moldatzen du, salbuespenen eta hobarien bidez; kuoten murrizketak ordenantzetan jasotakoa betez justifikatu behar dira eta ezin da eskatu informazio gehigarririk. Udal ordenantzetan ageri ez den informazio osagarria eskatzea gehiegikeria da eta ez da ondo ezkontzen datu babesaren arloko araudiarekin; eta , beraz, ez da legezkoa.

Kontsulta-egileak aurkeztutako idazkiak dio zenbaitetan bankuko aurrezki-libretaren fotokopia eskatu izan dutela, azken orriko mugimenduekin (gure ustez gehiegikeria da); eta aurrean “[...]ko Foru Ogasuneko ondasunen eta higiezinaren egiaztagiria eskatzen dute, eta beste bat Estatukoa”, eta Zerga Informazioa ere bai. Idazkiak dioenez, Zerga Informazioa “[...]ko Ekonomia eta Ogasun Ordezkaritzaren bulegoetan” ematen dute.

Beraz, berretsi behar dugu udalak, behar bezala kudeatu behar baditu abonoak, Zerga Ordenantzetan jasotako agiriak baino ezin dituela eskatu kuotan egiten diren hobariak justifikatzeko, eta informazio gehigarria eskatzea gehiegikeria dela eta ez duela lege babesik.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko azaroaren 23a